


Euskal eskola publikoa

nize

BUZTINTXURI
IKAST. PUBLIKOA
IRUÑEA

SAREAREN BERRI

BUZTINTXURI ESKOLAKO WEB
ORRIALDEA

www.cpbuztintxuri.educacion.navarra.es

Esteka honetan eskuragarri duzue ikastetxeko informazioa, dokumentuak eta azken berriak. Euskaraz zein gaztelera irakur daiteke, nahiago duzun hizkuntza beheko partean aukeratu.

Oraindik ere Argazki bilduma eta Blog atalak bukatu gabe ditugu baina lanean gabiltza gure ikasleek egiten dituzten proposamenen berri ahalik eta azkarren eman ahal izateko. Gogo handiak genituen teknologia berriek eskaintzen duten mundu zabal honetan gure txokoa izateko. Gure web orrialdeaz disfrutatzen gona bidatzen zaituztegu eta edozein zalantza argitzeko edota informazioa zabaltzeko gurekin kontaktatzera animatzen zaituztegu.

GAIA

'Vaca' proiektua

Ikasturte honetan, Uharteko Museoarekin elkarlanean, 'Vaca' proiektuan 3-5 urte bitarteko haurrekin murgildu gara: arte garaikidea ikaskuntza prozesuan. Haurrekin batera, proiektu honetan aritzen garen irakasleok Edertasunaren Kanona lantzea erabaki genuen. Hiru fase planifikatu genituen: hasiera edo sensibilizazioaren epea; garapena eta konzientzia kritika landuz, bide batez, Mileniumeko helburuekin lotu; eta hirugarrena edo bukaerakoa, ondorioak azaldu eta eskolako festan Pasearten azaldu eta bukaera eman. Haurren adina kontutan izanik, abiapuntu desberdinetatik zuzendu ginen. Hiru urtetan, haurrek beraiek orain arte izandako "momentu ederrenak" eta argazkien bidez azalduz; lau urtetan, urtebetzen bidez, eta bakoitzak dituen aspektu baikorrak edo/eta ederrak esanez; eta bost urtetakoak, arte eta egile desberdinen bidez abiatuz. Familien inplikazioa izugarri emankorra suertatu da. Espero dezagun hezkuntza komunitate osoan eta gizarte esteriopiko apurtzea, gizarte garapenean eragina hedatzea eta ahal den neurrian konzientzia kritika txertatzea eta garatzea. Uharteko Museoarekin batera, harremanetan egon gara, haiek beti prest guri laguntzeko. Bukatzeko, ekainean, hamabost egunetako iraupenez, honetan sarturik gauden ikastetxe guztietako proiektu guztiak erakusteko batean azalduko gara. Parte hartzen, animatzen zaituztegu.

ETXEKO BERRIAK

Eskola-baratza eta barazki denda buztintxur

IAZ BARATZA BAT JARRI GENUEN GURE ESKOLAN. LANA NEKETSUA IZATERA IRITSI DAITEKEEN ARREN, ESPERIENTZIA ZIRRARAGARRIA DA LANDAREAK HAZTEN IKUSTEA

BUZTINTXURI IP
IRUÑEA

ORAIN dela urtebete martxan jarri genuen gure Eskola-baratza. Gure Hezkuntza Komunitatearen aspaldiko asmoa zen. Udaletxean proiektu hezgarri eta sendoa aurkeztu ondoren eta ideiak argi genituela, gogo handiz aurrera jarraitu genuen. Aurten oso ibilbide ederra egiten ari gara baratzaren eskutik, bai txikiak bai guraso eta irakasleok ere gozatzen duguna.

Sortu dugun baratza ekologikoa eta naturarekiko begirune handikoa da, noski. Horixe da Kepa Baines lagunaren eskutik lortu duguna, laguntza bikaina izan baita. "Txinatar bankalak" deritzonak buruzko aipamena bere ahotik entzun genuen lehenengo aldiz, baita barazki multzo eta haien txandakatzaren garrantziari buruzko guztia ere, bera aditua baita. Bere aholkuak jarraituz, baratzaren lehenengo urratsak burutu genituen.

Behin baratza martxan jarrita, kurrikular mailaren esanahia eman nahi izan genion. Horrela, Lehen Hezkuntzaren lehenengo mailako ikasleek horren ardura, kudeaketa eta garapena aurrera eramango zutela erabaki genuen. Aurten, beraz, 6 urtetako haurrak izan dira baratzaren kudeaketa integralaren arduradunak. Haien esku gelditu da barazkien landaketa osoa, ureztatzea, sortu diren arazo konponbideen bilakaera... Ingurunearen Ezagutza Arloaren erdigunea izan da baratza ikasle hauendako, baita haien ezagutzaren barneraketa eta bizipen guzti hauek isladatzeko sortu ditugun koadernoaren ekoizpena ere. Koadernoak eta norberaren kudeaketa. Heldutasun eta autonomia handia behar dute gure ikasleek; harrituta utzi gaituzte.

Modu honetan, baratzaren antolaketa eta lanak burutu, jasotzen genituen barazkien kudeaketari buruzko hausnarketari ekin genion. Barazkien salmentaren beharra sumatu genuen eta horretarako Barazki Denda sortu genuen.

Barazki Dendaren helburua, beraz, baratzan landatutako barazkiekin etekina ateratzea da. Jasotzen dugun diruarekin, haurrek beraiek erabakitzen dute zertan erabili. Badute baldintza bakarra, talde osoarentzat etekina suertatu behar dela. Eta ederki ulertu dute. Urtean zehar burutu ditugun hiru Barazki Dendekin, ikasturtearen bukaeran egin beharreko txangoetako autobuseko ordainketarako erabili nahi dute.

Egitear dugu laugarren denda; honetan, baratzuri freskoak eta



Barazki-dendan baratzean ekoiztutakoa saltzen dugu. ARGAZKIA: BUZTINTXURI IP

espinakak... Berritro landatzeko beharra dugu. Berritro litxuak, pepinoak, lore ederrak, borraiak... Eguraldiak ez digu gehiegi lagundu azken bolada honetan, baina tira, beroa helduko da.

Aurreko dendetan, tomateak, piperrak, loreak, kalabazinak, borraia, porruak eta azak saldu ditugu.

Barazkiak erosteko, umeen adinaren arabera, eskolako gurasoak ditugu. Kobratu eta bueltak ere ematen dizkiegu. Jakinaren gainean daude gurasoak; primeran dakite gurasoek, gure eskutitza jaso ondoren, barazkiak erosteko aukera dutela. Eskolatik ere horren berri ematen dugu.

Aurretikan, gelan, saldu behar ditugun barazkiei prezioa jartzen diegu, barazki horien izenekin txartelak prestatzen ditugu, prezioen txartelak ere burutzen ditugu... Denda sortu, apaindu, mostradorea eta guzti... Gurasoentzako oharrak idazten ditugu, geletako haurrei banatu, andereñoi beharrezkoak diren azalpenak ematen dizkiegu... Eta poza, poza ikaragarria, umeena. Baita ere gurasoena, zalantzarik gabe. Oraindik gogoratzen dugu Barazki Denda lehenengo aldiz martxan jarri genueneko. Mandarrak eta guztiz, dendalariak bezala... Gelako gurasoei ordua eman genien eta banan-banan atenditu. Zelako farrak! Denak pozik, umeak, gurasoak...

Baratzak ongarria eta konpostadoraren beharra ekarri zigun. Egutero, hamaiketarako, eskola osoko umeek fruta ekartzen dute,

amankomunean jartzen duguna. Baita lagunentzako prestatu ere (garbitu, puskatu, antolatu, zerbitzatu). Momentu honetan, Nafar Gobernuak ekartzen digun frutarekin hasi gara.

Fruta horren hondakinak, konpostadorara gela bakoitzeko arduradunak egutero botatzen du. Beranduago, gurasoek hondakin guztia konpostadora nahastu egiten dute. Orain dela zazpi hilabete hasi ginen. Bi hilabete falta zaizkigu ongarria ikusteko. Bederatzi hilabete pasa behar dira ongarri bihurtzeko. Garaia heltzen denean, baratzara botako dugu. Momentuz, ongarria Mankomunitatik ekartzen dugu.

Eskolan ere beste motatako hondakinak jasotzeko ontziak ditugu. Guraso eta umeek ere etxetik ekar ditzaketanak; hostoak, egur makik meheak, belarra, zerrautsa... Gero konpostadoran ere bota egiten duguna...

Bada ziklo oso bat baratza ekin-tzak ekarri diguna. Baita kon-

Barazki dendaren bidez, ekoiztutako barazkiei etekin ekonomikoa ateratzen diegu

Baratza gure Hezkuntza Proiektuaren zutabe nagusietako bat da

tzientzia ekologikoa ere, inguruneakoa, ur zikloarena, naturarekikoa.

Lehen Hezkuntzaren lehenengo mailako umeek baratzari esker ur zikloa, eguzki sistema eta ilargiaren faseak ezagutu eta barneratu dituzte. Baratzari esker, gure inguruaren garrantziak jabetu dira, baita ikertu ere. Eta batez ere, poza. Disfrutatzen, esperientzatzen, saltseatzen, lagun arteko giroan, elkarlanean, kooperazioari esker ikastea, joku bihurtuz.

Gure baratzak, gure Hezkuntza Komunitatea aberastu du. Berari esker sortu dugu Guraso Komisia, bolondres moduan, laguntzen gaituena. Ez bakarrik lagundu, baita disfrutatu ere, hartzen dugun hamaiketako barne, besteak beste.

Hurrengo ikasturtean, lehenengo mailara helduko diren ikasleek hartuko dute baratzaren lekukoa. Bigarren mailakoendako baratzak esanguratsua izaten jarraituko du, baina beste marko batean. Baita gaituzteko eskolako umeentzako ere. Aurten esperientzia bizi ondoren, beste motatako ikasketak izanen dituzte; zalantzarik gabe, aurtengokoena bezain garrantzitsuak. Eskolan dauden ume guztiek biziko dute poliki-poliki baratzaren kudeaketaren esperientzia. Eta urte urte eskertuko diogu naturari aukera hau eman izana.

Baratzarik gabe gure eskola desberdina izanen litzateke. Baratzak jadanik gure Hezkuntza Proiektuaren zutabe nagusietako bat da, baita kurrikular mailan ere.